

# Euskararen Gaitasun Agiria

## EGA

### 2002ko urriaren 5ekoa A eredia

1. deitura: .....

2. deitura: .....

Izena: .....

NA zenbakia: .....

#### AZTERKETAKO ARIKETEN PUNTUAZIOA ETA DENBORA BANAKETA

Ahozkoaren ulermena ariketa burutu ondoren, **2 ordu eta 20 minutu** dituzu azterketa hau egiteko. Denbora nahi duzun moduan banatu eta azterketa nahi duzun ordenan egin dezakezu baina hona, ariketen puntuazioekin batera, aztertzaileek pentsatutako denbora banaketa:

Azpiatala	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez	Proposatutako denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	---	---	3 min.
1. IDAZLANA			
Idazlana	25	15	55 min.
Ortografia	5	1	
2. ESALDIAK BERRIDATZI	5	2,5	25 min.
3. SINONIMOAK EMAN	5	2,5	
4. IRAKURMENA	10	5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	---	---	12 min.
Guztira	50	29	2h 20m

Idatz ezazu **garbi eta tintaz**: aztertzaileek ez dute zuzenduko irakurri ezin dena. Ariketa guztietan atera behar da gutxienerako puntuazioa azterketa gaitzeko.

## AHOZKOAREN ULERMENA I

1. *Elkarrizketaren aurretik, zer dio kazetariak?*
  - a) Itzultzaileari *Harry Potter*-en estiloko zerbait euskaratzeak aparteko poza ematen diola.
  - b) Harry Potterren liburuak euskaratzen itzultzailea guztiz lanpetuta ibili dela.
  - c) Harryri esker itzultzailea ere ezagunagoa bihurtu dela.
  - d) Hedabideek egilearengana jo zutela informazio eske.
  
2. *Harry Potter-en estiloko zerbait euskaratzeak aparteko poza ematen al dio itzultzaileari?*
  - a) Batere ez, dirutan ez baita batere errentagarria.
  - b) Literatur itzulpenak gustura egiten dira, eta Harri Potterrena bezalako obrekin, gainera, umetasuna pizten da.
  - c) Itzulpenen artean bi multzo handi badaude ere, Harry Potterrena ez dago non kokatu.
  - d) Jaten ematen dutenetakoa da Harry Potterren itzulpena.
  
3. *Zer dio Iñaki Mendigurenek itzulpenari buruz?*
  - a) Ezin dela gogoz kontra inongo itzulpenik egin, emaitzetan nabaritzen baita.
  - b) Hasieran gogo txarrez hartu bazuen ere, gero gustura egin duela.
  - c) Itzulpen guztiak mimatu behar direla.
  - d) Pribilegiatua sentitzen dela, liburuok arrakasta handia lortzen ari direlako.
  
4. *Zein izan da itzultzailearen jarrera Harry Potterren sortzaileak asmatu dituen hitz eta izenen aurrean?*
  - a) Errespetatu egin ditu, gainerako hizkuntzetan egin den bezala.
  - b) Oro har, jatorrizko izenei bere horretan eutsi die; testuaren ulermena kolokan egon denetan bestela jokatu du.
  - c) Kasu batzuetan bere horretan eutsi; baina gehienetan itzuli eta egokitu egin ditu.
  - d) Asmatu egin behar izan ditu existitzen ez ziren gauzen kasuan.
  
5. *Zer dio Iñaki Mendigurenek itzulpenaren biribiltasunaz?*
  - a) Irakurlearengana heldu aurretik bizpahiru itzultzailearen eskuetatik pasatzen dela.
  - b) Zenbat eta gehiago landu, orduan eta nahasgarriagoa gertatzen dela itzulpena.
  - c) Euskarazko bertsiorako ohartxo lagungarriak ez sartzeari pentsatu dutela.
  - d) Irakurle batek eskuratzen duen itzulpena aurretik esku askotatik igarotzea dela.

*Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:*

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

## AHOZKOAREN ULERMENA II

6. *Harry Potterren liburuak argitaratzeko erritmoaz, zer dio?*
- a) Galiziaren aldean ezin dela esan arin goazenik.
  - b) Harry Potterren liburuen arrakasta kontuan hartuta lehenbailehen euskaratu ezean, irakurleak gaztelaniazko bertsioa irakurrita izango duela.
  - c) Merkatura gaztelaniazko bertsioa baino lehenago heltzea dela helburua.
  - d) Argitaletxeak ale ezberdinen itzulpenak arineketan egitera behartu duela.
7. *Balizko irakurleari buruz, zer dio?*
- a) Idazleak liburuak idatzi zituenean ez zeukala adin mugarik buruan.
  - b) *Harry Potter* helduentzako literatura dela.
  - c) Hasieran umeentzat pentsatuta egon arren, argi dago helduek ere irakur dezaketela.
  - d) Hamar urte baino gutxiagokoek ez dutela ezer ulertuko.
8. *Frantziari dagokionez, zer esaten da?*
- a) Ez dela oraindik argitaratu.
  - b) Jende gazteagoak irakurtzen duela.
  - c) Haur txikiagoek irakurri ahal izateko pasarte batzuk baztertu egin dituztela.
  - d) Irakurle gazteenei debekatu egin dietela.
9. *Liburu kopurua dela eta, zera dio testuak:*
- a) Laugarrenaren itzulpenetik bosgarren itzulpenera tarte bat utzi duela itzultzaileak beste lan batzuk egiteko.
  - b) Harry Potterren bosgarren istorioarekin amaitzen dela seriea.
  - c) Rowlingek bilduma osatu arte ezer gutxi jakin duela egin den pelikulari buruz.
  - d) Rowlingek Harry Potterren istorioekin zerikusia duten beste bi liburu idatzi dituela.
10. *Zer dio Iñaki Mendigurenek txikitako irakurtzeko ohiturei buruz galdetzen zaionean?*
- a) Familiaren baserrian deskubritu zituela *Tintín, Los Cinco, Asterix eta Obelix*.
  - b) Umetan ez zuela batere irakurtzen, ezta gero ere.
  - c) Euren baserrian nahikotxo irakurtzen zela.
  - d) Euren baserrian tebeoak baino ez zeudela.

*Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:*

6	7	8	9	10
---	---	---	---	----

## 1. IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta al bait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
  - a) *gaiaren eraketa eta garapena;*
  - b) *hizkuntz aberastasuna eta zehaztasuna;*
  - c) *zuzentasuna.*
4. *Lehenengo orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik egin dezakezu.*

## ZIRIBORROETARAKO ORRIA



Iturria: ZABAIK. 2001-7.

	Haur eta Lehen Hezkuntza	DBH
EAE	176	175
Nafarroa	176	165
Katalunia	178	176
Asturias	180	170
Kantabria	170	164
Madril	174	169
Sevilla	174	165
Albacete	167	162

Iturria: ZABAIK. 2001-7.

**Gurean opor gehiegi al dute ikasleek?**


⇒ "Europako beste herrien aldean, gurean opor egun gehiago dauzkate ikasleek".

⇒ "Ikasturte orekatuagoaren alde gaude; gakoa ez dago opor kopuruan, banaketan baizik".



Argazkia: ANPE, 451 ZENB. 2001

"Ikasturtea gainditu ez dutenei egungo hezkuntza sistemak ez die laguntzarik ematen. Haurtzat udako oporrak luzeegiak dira."



Argazkia: IKASTOIA ALDIZKARIA, 107 zenb. 2002



Argazkia: IKASTOIA ALDIZKARIA, 107 zenb. 2002

Gaztetxoek gozatu ere egiten dute eskola denboran. Nagusiek, berriz, estres maila oso handiak izaten dituzte.

Zailtasunak dituzten ikasleentzat udako eskolak sortzeko eskatu dute zuzendariek

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Ikasleen oporrak beharrezkoak? Arrazoiak.
- Oporrak luzeegiak ote?
- Nola banatu astea? Eta ikasturtea?
- Ikasleen oporraldia, langileen oporraldia. Berdintasunik? Alderik?
- Proposamenik?

1996an *Dolly* ardi klonatua lortu zuen Ian Wilmut ikertzaileak, Eskozian, 247 saioren ondoren.



Argazkia: EGUINKARIA, 2001

Animalia klonatuen biziraupena eskasa da: 1-5 urte.

❑ Ian Wilmut: «Ez dago bermerik gizaki bat klonatzeko» (2001)

Legez, estatuek ez dute onartzen giza klonazioa

«Ermalkuntza artifizialeko beste teknika batzuen antzera, birsorkuntzarako klonazioa ere etorkizunean arrunta izango da»

Bikote antzuei umeak izateko aukera ematea eta gaitz berrien kontra borrokatzea dira helburuak.

**Severino Antinori medikuak AEBetan gizakiak klonatuko dituela iragarri du**



Argazkia: EGUINKARIA, 2001

❑ Zientzialari batzuk klonatzearen alde daude eta egitasmoa prestatu dute

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Gizakiak klonatzea, amesgaiztoa ala aurrerakuntza?
- Osasun arazoak, moralak, erlijiosoak, politikoak...
- Zientzialarien artean eztabaida. Zilegi al da gizakiak klonatzea?
- Dolly-ren “aita” giza klonazioaren aurka agertu da.
- Etorkizunean teknika arrunta?









## 2. ESALDIAK BERRIDATZI

*Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:*

...takoan                      *etorri*takoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Hasieran errua berari egotzi nion. Horrek lotsa eman zidan gero.

*Hasieran bera errudun..tzat ...jo izanak..... lotsatu ...egin ninduen gero.....*

1. Musika eskola hartan kantuan nor irakatsi ez geneukanez, herriko abesbatzako zuzendariarengana jo genuen laguntza eske.

.....*...nik*.....

2. Gertatutakoa anaiari ez kontatzeko eskatu zidan amak.

.....*konta*.....

3. A ze ikara eman didazun!

Hau .....*!*

4. Zure jarduna entzun ondoren, argi daukat: zu bezain ona banaiz kantuan!

.....*bestekoa*.....*!*

5. Ez daukazue guztiok azterketa egin beharrik, lantxo bat eginez ere gaintitzen da eta.

.....*zertan*.....

6. Ordenagailu hotz batek liburu gozo bat ordezkatzea? Nola pentsa daiteke hori?

.....*ordezka*.....*ere!*

7. Beharbada ez diot baserriari nahi besteko onurarik aterako, baina aita zenak nahi zuena egingo dut, behintzat.

Baliteke .....

8. Behin eta berriro saiatuagatik, ez du sekula ere ondo egiterik lortu.

..... ba... ..  
.....

9. Gu guztiontzat kezkarria da gure herriko trafikoaren egoera.

.....  
..... kezkatu .....

10. Ikasleak nola tratatu behar ziren ez bazekien, hobe zuela etxean geratzea esan zion zuzendariak.

..... ezean .....

### 3. SINONIMOAK EMAN

*Ondoko esaldietan markatuta dauden hitzen sinonimo egoki bana jarri behar duzu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.*

1. Atzo auzokideen etxean egundoko **sesioa** ..... izan zuten; batzuek filma ikusi nahi eta besteek partidua.
2. Hasieran **barrabaskeria** ..... bat egitea otu zitzaidan, baina bi aldiz pentsatu eta atzera egin nuen.
3. Alderdien arteko **hitzarmenak** ..... ez du luzaroan iraun.
4. **Maindire** ..... zuri-zuriak eraman zituen ezkontzara, ilusioen antzera, amak erosiak eta brodatuak.
5. **Korrika** ..... irteten ginen beti eskolatik, eta astiro-astiro sartu.
6. Neska horrek nahi duen guztia **erdietsiko** ..... du, baina nortasun apalegi hori gainditu egin behar du.
7. Horrekin ez dago fidatzerik: komeni zaiona hartu eta komeni ez zaiona **alboratu** ..... egiten du.
8. **Jagoleak** ..... inguruan zituen arren, ihes egitea lortu zuen.
9. Eguraldi honekin, neure-neurea dudan **nagikeria** ..... areagotu egiten zait.
10. Gezurretan ote zebilen **errezeloa** ..... hartu genion, jarrera hura ez baitzen parte onekoa.

## 4. IRAKURMENA

*Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenetatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.*

### EDGAR ALLAN POE

**A**ntzezleen semea zen Edgar Allan Poe. Ama zen, izan, antzezle, eta arrakasta handia izaten zuen bere lanetan; aitak ez zuen antzerkirako batere balio eta edaten hasi zen. Alkoholak markatuko zituen bikotearen hiru seme-alabak: William, zaharrena, gazterik hil zen tuberkulosi alkoholikoz; bigarrena, Edgar, idazlea, *delirium tremens* krisi batek jota hil zen, eta alaba gazteena, Rosalie, adimen urrikoa zen. Aitak etxetik alde egin eta, ama, Edgarrek lau urte bete gabe hil zen. Amaren eritasunak eta heriotzak arrasto sakona utzi bide zuten Poeren memorian.

Umeak familia banatan geratu ziren. Allan senar-emazteek hartu zuten Edgar. Eskoziar jatorriko familia aberatsa zen, presbiterianismo zorrotzekoa. 1812an Allan jauna Londresera joan zen eta berarekin eraman zituen emaztea eta haurra. Lau urte eman zituen han, barnetegietan sartuta Edgarrek. Han, alde batetik, asko ikasi zuen –frantsesa, historia, latina eta literatura–; baina, bestetik, kalte handia egin zion Ingalaterrako egonaldia, aldaketak ekarri zion bakardade eta noraezagatik, hegoaldeko paraje eguzkitsutik atera eta “ingeles herri goibel” batean utzi baitzuten, bakarrik, iparreko lainoetan, zaharinen artean. Hango eraikinak agertuko ziren hogeitau urte geroago «*William Wilson*» kontakizunean, eta orobat hangoa da «*Usher Etxearen hondamena*» ipuineko dekoratua, ipuin gehientsuenetako bera: etxe zahar izugarri handia, laino artean galdua, horma garaia, ate astuna, ziegez beteak diruditen sotoak dituen, eta inoiz bertan bizi izan ziren hilen arrastoak non-nahi igartzen zaizkiona. Dekoratu erromantiko hori ez da bakarrik literatura gotikoaren adierazgarria, idazlearen haurtzaroko bizikizun latzen emaitza ere bada.

1820ko udan itzuli ziren Allandarrak Richmondera. Edgar, hamaika urterekin, haur ikaratia, isila, goibela zen, eta, bere heroi guztiak bezalaxe, bere baitan itxi zen. Virginiako unibertsitatean sartu zen, baina adiskideekin batera edanean eta jokoan hasi zen. Izan ere, edariak ekarriko zion hondamendia: taldean ondo hitz egiteko bizkorgarriren bat behar izaten zuen, baina kopa bat jerez hartzea sekulako mozkorraldi baten hasiera gertatzen zitzaion. Zorrak egin eta gurasoen etxetik alde egin zuen.

West Point-eko Akademia Militarrean sartu zen, baina bere izaera zakarrak berehala sortu zizkion arazoak agintariekin. Azkenean bota egin zuten eskola militarretik. Izeba batengana jo zuen bizitzera, Maria Clemm, beti zainduko zuen emakume eraman onekoa, Poeren emazte maitea izango zen Virginiaren ama.

1833an Baltimoreko egunkari batera sei kontakizun igorri zituen *Botila batean aurkitutako eskuizkribua* tituluarekin eta lehiaketan garaile gertatu zen.

*Southern Literary Messenger* izeneko aldizkari zuzendaritza hartu zuen eta bizitza berri bat hasteko gogo zuen, segurtasuna zuen lanean, bere lehengusina Virginia Clemmen-ekin ezkondu zen: urtebeteren buruan hilko zen hamahiru urteko emakume-haurra. Ezkondu eta hilabete gutxiren ondoren ondorezik larrienak jota zegoen poeta: “*Alferrik borrokatu naiz malenkoniaren kontra. Zorigaitzak jota nago, eta ez dakit zergatik*”. Opioa eta alkohola hartzen zituen bere egonezina sendatzeko. Neurrigabe edaten hasi zen, eta zenbait egunez desagertzen zen, taberna zulo miserabletan. Krisiak gero eta gogorrak ziren. Bere hitzak dira honako hauek: “*Nire etsaiek burua galtzea edateari egozten diote, edatea burua galtzeari leporatu beharrean*”.

Hainbat aldizkaritako zuzendari izan zen, eta modu berean errepikatzen ziren beti gertaerak: gau eta egun lan eginez, bere ardurapean zituen aldizkarien argitaraldiak biderkatu ondoren, arrakasta eta dirua lorturik, bat-batean depresioak jotzen zuen eta lur jota geratzen zen. Virginiaren heriotzaz gero larriagotu egin ziren krisi horiek.

Berrogei urte zituela hil zen. Taberna bateko atean aurkitu zuten *delirium tremens* krisi batek jota. Eritegian hil zen egun gutxira, bakarrik, estimatzen zutenek ezer ez zekitela, bere ipuinetako pertsonaiei deika. “*Jainkoak lagun diezaiola ene arima gaixoari!*” izan omen ziren Edgar Allan Poeren azken hitzak. Idazlea hil bezain pronto sortu zen elezaharra, sortu ziren elezaharrak, Poeren bizitzak bezala obrak eskaintzen dituen gaietatik abiatuta: sadismoa, nekrofilia, intzestua, droga. XX. mendeko psikoanalisiak, esan gabe doa, berebiziko materiala aurkitu du Poerengan, eta horrek areago zabaldu du idazle madarikatuaren izena.

Poeren poemarik ospetsuena *Belea* da: itzal eta misterioz betetako giro fantastikoan, edertasunaz eta heriotzaz mintzatzen dira zoritxarreko txoria eta poeta.

Idazle amerikarraren lanik miretsienak bere narrazio fantastikoak dira. «*Ligeia*», «*Usher Etxearen hondamena*», «*Morgue kaleko hilketak*», «*Urrezko kakalardoa*», «*Erretratu obala*»... dira, besteak beste, narratzailearen kontakizun batzuk.

Edgar Allan Poek poesia, fikzioa eta kritikaren teoria landu zituen. Zenbait kritikariren iritziz (T.S. Elliot, A. Huxley), ezertan ez zuen obra biribilik lortu. Poeren poesiak, oso bakuna baita, oso erritmo markatuko lelo baten efektua eragiten du, eta sentimendu sakon eta primitiboak azalerraten ditu. Poemen musikaltasuna agerikoa da, baina egileak sarritan belarrira ondoen jotzen duen hitza hautatzen du, ez poemaren zentzuak behar duena.

Izumenezko eleberria genero herrikoa eta tradizio handikoa da ingeles hizkuntzazko erromanizismoan. Poek leialtasunez jarraitzen dio tradizio horri, topiko guztiei eutsiz, baina osagai berriak txertatu zituen, eta generoa bikain berrizatu zuen. Lehen begiratuan, klasikoak bezalakoxeak dira Poeren izumenezko ipuinak: heroia bakar-bakarrik dago gaztelu zahar batean, edo ziega batean itxita dago, edo basoan galduta dabil.

Osagai horiek, ordea, Poek ez ditu deskribatzen: halako lekuetan, egoera horietan egoteak dakarren egonezina eta larritasuna deskribatzen ditu. Honen izuzko ipuinetan gehiago nabarmentzen da izakia lekua baino, sentsazioa objektua baino. Poek ez du eszenografiarik antolatzen, izumenezko ipuin klasikoetan bezala; aitzitik, gogo egoera iradokitzea da helburua. Irakurketa poliki-poliki hasten da, irakurlea egoeraren dimentsio psikologikoz jabe dadin; Poeren unibertsoa ez dago, ez benetako munduan, ez izadiak gaindikoa: adimenaren mundua da harena, gogoarena, errealitate objektiboaren gainean eraikia.

Poeren ipuinek eragin handia izan dutela inork ez du auzitan jartzen; areago, literatura genero berri baten sortzailea izan zela ere esaten da, polizia eleberraren hain justu. Detektibe logikaz betea eta sen handikoa, Sherlock Holmesengandik hasita detektibe guztien eredu izango zena, Poek asmatuak Monsieur Auguste Dupin da, «*The Murders in the Rue Morgue*» (*Morgue kaleko hilketak*), «*The Purloined Letter*» (*Gutun ebatsia*) eta «*Marie Roget-en misterioa*» ipuinen protagonista. Dupin dandy bat da, itxuran nahiz arazoibidean, bere lana dotoretasun matematikoz egiten duena, eta matematikaren logika zehatzaz harilduko dira istorio hauek. Ez dute, ordea, alderdi makabroa galduko, xehetasun odoltsu higuigarrienak ere argi deskribaturik agertzen baitira; itxuraz oso bestelakoak diren istorio beldurgarrienak «*Putzua eta pendulua*», «*Berenize*», adibidez logikarik hertsienaren garapenean oinarritzen diren bezala.

Asaldagarria izaten da maiz Poeren kontakizunen irakurketa, egonezinak hartzen baitu irakurlearen irudimena, ez plazerrik gabea ordea. Poeren kontakizunak sentikortasunari eragiten diote, haren alderdirik senezkoen eta ezkutuenari. Eta eragin horrek ezezagunak edo ezagut daitekeenaren mugak gudan duten indarrari buruzko hausnarketa sorrarazten dute.

*Kontakizunak*. Hitzaurrea.

LITERATURA UNIBERTSALA, 88. zenb. IBAIZABAL  
Koro Nabarro Etxebarria  
(laburtua eta moldatua)

*Ondoko hamar galderetan, aukera ezazu bakoitzean erantzunik egokiena eta dagokion letra koadro honetan ipini.*

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

1. *Zer gertatu zitzaien Poe hurrei gurasorik gabe geratu ondoren?*
  - a) Ez banatzeko Allan familiaren ardurapean geratu ziren hiru seme-alabak.
  - b) Seme-alabak familia desberdinetan banatu zituzten eta Edgarri familia eskoziar bat egokitu zitzaion.
  - c) Allan senar-emazteek hartu zituzten haurrak, baina Edgar ez beste guztiak berehala hil ziren.
  - d) Umeak familia banatan geratu ziren, Edgar izan ezik, hau Eskoziara eraman baitzuten.
  
2. *Nolakoak izan ziren Edgar Allan Poek Ingalaterran eman zituen urteak?*
  - a) Mesedegarriak eta kaltegarriak izan ziren, ikasketa aldetik begiratu edo haurraren heziketa aldetik begiratu.
  - b) Kaltegarriak izan ziren guztiz, ikasketetan egindako aurreratze urriak ez baitzuen merezi izan, jasan behar izan zuen bakardadea eta tristura kontuan harturik.
  - c) Nahiz eta tristeak izan, bakarrik, herri goibel batean eta zaharkinen artean bizi izaten ikasteko baliagarriak izan ziren.
  - d) Kaltegarriak izan ziren, ingeles herri goibelaren izaera kutsatu baitzitzaion, gero bere kontakizunetan agertuko den bezala.
  
3. *Etxe zaharra, lainoa, horma garaiak, ziegak...*
  - a) Hori guztia literatura gotikoko kontakizunetako dekoratua baino ez da.
  - b) Erromantikoek asko maite zituzten elementu horiek beren kontakizunetako dekoratu gisa, askoren haurtzaroko bizipen latzen emaitzak baitziren.
  - c) Kontakizun gotikoen dekoratua ez ezik gure idazlearen bizitzako eskarmentua ere baziren elementu horiek.
  - d) Edgarrek barnetegietan emandako haurtzaroko bizipen latzen emaitza ziren, besterik gabe.
  
4. *Virginiako unibertsitatea alkoholari eta jokoari lotua dago Allan Poeren biografian.*
  - a) Izan ere, kopa bat jerez edatea nahikoa zuen erabat mozkortuta geratzeko.
  - b) Jendearen aurrean inor baino bizkorrago azaltzeko alkoholaz baliatzen baitzen.
  - c) Lagunarteko giroan sartu ahal izateko bizkorgarriren bat behar izaten baitzuen.
  - d) Jendearen aurrean hitz egiteko ausardia alkoholaren bidez lortzen baitzuen.

5. *Zein da Poeren bizitzan behin eta berriz errepikatzen den prozesua?*
- Lanak arrakastara eramaten zuen eta dirua lortzera, baina gero hondoa jotzen zuen.
  - Gau eta egun lan eginez lortzen zuen arrakastak lur jota uzten zuen.
  - Aldizkariaren argitaraldiak biderkatu, arrakasta eta dirua lortu eta guztia ospatzeko edanari ematen zion.
  - Gau eta egun lan egiteak arrakastara eta dirua lortzera eramaten zuen, baina emaztearen gaixotasunak lur jota uzten zuen.
6. *Zelakoa da Poeren «Belea» izeneko poema?*
- Elkarrizketa bat da eta horretan poetak edertasuna defendatzen du eta heriotza, berriz, zoritxarreko txoriak.
  - Giro fantastikoa du, belea bezalako hegazti batek hausnarketa egiten baitu edertasunaz eta heriotzaz.
  - Edertasunaren eta heriotzaren arteko elkarrizketa da.
  - Hegaztiaren eta poetaren arteko elkarrizketa bat da, edertasunaz eta heriotzaz.
7. *Ba al dute musikaltasunik Poeren poemek?*
- Bai, lelo zamatsu batek markatzen baitu erritmoa, belarrira ondo ematen duelarik.
  - Bai, baina poemaren esanahiari ongien dagozkion hitzei muzin egiten die maiz.
  - Bai, baina ez belarrira ongi ematen duen leloa behin eta berriz errepikatzen delako soilik.
  - Bai, belarrira hobekien ematen duten eta poemaren esanahiari ere ongi dagozkion hitzek markatzen baitute erritmoa.
8. *Zer dio Edgar Allan Poeren beldurrezko kontakizunei eta ingeles tradizioari buruz?*
- Ingeles erromantizismoaren tradizioaren eredu argiak direla haren ipuinak.
  - Ingeles erromantizismoaren ereduak muzin egin ziela alderdi askotan.
  - Osagai berriak txertatuz generoa berritu egin zuela tradizioari muzin egin gabe.
  - Topiko bihurtu diren berrikuntzak ezarri zizkiola ingeles erromantizismo gotikoari.
9. *Poeren beldurrezko kontakizunetan,...*
- lekuek edo objektuek ez dute izakiek edo sentipenek adinako garrantzirik.
  - izakiak edo sententzioak lekuaren eta objektuaren beharra du izua behar bezala sentiarazteko.
  - ez dago eszenografia antolatuz, beldurrezko egoera iradokitzen duenik.
  - izakiaren eta sententzioaren aldean tokiak eta objektuak dira benetan funtsezkoak.
10. *Zelakoak dira Dupin detektibea protagonistatzat duten kontakizunak?*
- Itxuraz, logika matematiko zehatzez harildutako istorioak baino ez dira.
  - Matematikaren logika zehatzaren eta deskribapen beltz okaztagarrien uztartzea dira.
  - Dandy baten dotoretasunean eta matematikaren logikan oinarritutako istorioak dira.
  - Xehetasun odoltsu higuingarriak matematikaren logika zehatzari gailentzen zaizkion istorioak dira.

## AZTERTZAILEAK ERABILTZEKO

				Erreferentzia	Azterketa honetan lorturikoa
AHOZKOAREN ULERMENA: guztira				5	<input type="text"/>
IDAZLANA BERA	Edukia *		0-7	25	<input type="text"/>
	Moldea *		0-8		
	Zuzentasuna *		0-10		
ORTOGRAFIA				5	<input type="text"/>
ESALDIAK BERRIDATZI				5	<input type="text"/>
SINONIMOAK				5	<input type="text"/>
IRAKURMENA				10	<input type="text"/>

\* Adierazi gurutze edo zenbaki batekin zein alderdi ez duen gainditu.

### Kalifikatzeko irizpideak

*Aztertzaileentzako jardunbidea* liburuko azalpenen eta oharren sintesia.

#### IDAZLANA

**EDUKIA (0-7) puntu.** Honetan adierazia kalifikatuko da, hots, garatzeko eskainitako gaia zein neurritan osatu den:

- Gaiarekin lotura duten / ez duten alderdien garapena.
- Argudio eta adibide asko / gutxi.
- Gutxieneko hitz kopurua.

**MOLDEA (0-8) puntu.** Adierazpena kalifikatuko da, hots, edukia azaltzeko moldearen kalitatea:

- Egitura aberatsak / sinpleak.
- Lexiko zehatza eta adierazkorra / desegokia edo urria.
- Ideien eta egituren arteko kohesioa, lotura.
- Idazlanaren egituraketa orokorra, paragrafoen antolamendua.

**ZUZENTASUNA (0-10) puntu.** Hizkuntz akats nabarmenen arabera kalifikazioa, hots, joskerazko zuzentasuna:

- Deklinabidean: kasu atzizkiak zuzen / oker erabiltzea.
- Aditz mailakoa.
- Perpausen egituraketa.

Hiru alderdi horietakoren batean nabarmen huts eginez gero edota, oro har, hiruretan maila kaxkarra erakutsiz gero, ezingo da *Idazlana* gaindituzat eman.

#### ORTOGRAFIA

5	Oso zuzena
3-4	Akats ez oso larriak
1-2	Akats larri batzuk
0,1-1	Oinarrizkoak edo akats larri ugari

#### ESALDIAK BERRIDATZI

Berridatzi den esaldiak honako baldintzak bete behar ditu zuzentzat eman ahal izateko:

- Esaldi bakarra atera behar da berridazketaren ondorioz.
- Eredutzat ematen den esaldiaren zentzua osorik jaso behar du.
- Eskaintzen den “bidea”ri jarraituz osatua izan behar du, eta ez beste bide batetik eratua.
- Gramatikaren aldetik zuzena izan behar du, osorik.
- Komatxoak-edo erabili badira, horiek adierazten duten elementuen ordenak eta puntuazioak ere zuzenak izan behar dute.
- Ortografia zuzena izan behar du.

#### SINONIMOAK

Ontzat hartu ahal izateko:

- Testuingurua kontuan hartuta, egokia izatea.
- Bat baino gehiago jarriz gero, denek izan behar dute zuzenak.
- Atzizkiduna bada, atzizki eta guzti emana.